



Prensa oharra

Nazioarteko lankidetzaz egindako elkartasun kanpaina

HAURREN TXERTATZEA, EROSKI-REN ELKARTASUN ZENTIMOEN PROGRAMAKO KAUSA BERRIA

- UNICEFen, Mugarik Gabeko Medikuen eta ACNURen alde jardungo da garapen bidean diren herrialdeetako haurrentzat dirua biltzen
- *Elkartasun Zentimoak* EROSKIren urteroko programa bat da, bezeroek dohaintzak egin ditzaketena hautaturiko gizarteko zenbait kausaren alde; kausa horiek hautatzeko, aintzat hatzen da 3.500 bazkide-bezero baino gehiagoren iritzia

Elorrio, 2021eko urtarrilaren 8a.- [EROSKI](#)k martxan jarri du *Elkartasun Zentimoen* programaren esparruan, beste elkartasun kausa bat [UNICEFi](#), [Mugarik Gabeko Medikuei](#) eta [ACNURI](#) laguntzeko garapen bidean diren herrialdeetako haurrak txertatzen. Kanpaina hau urtarrilaren 27ra arte luzatuko da, eta haren helburua da dirua biltzea, herrialde askotako 40.000 haurri baino gehiagori txertoak jartzen laguntzeko elgorriaren, poliomielitisaren eta koleraren aurka; besteak beste, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Txad ekialdeko eremuetan.

"EROSKIko bazkide-bezeroek uste dugu elkartasunak gainditu egin behar dituela mugak, eta horregatik, gugandik urruti dauden beharrezaneiei erantzuteko ere egiten ditugu kanpainak. Urte hasiera honetan, COVID-19aren txertoa hartzea izango da gure gizarteko kezkarik handienetako bat; dena den, ez dugu ahaztu behar txertatzeko premia munduko beste toki batzuetan ere badagoela. Bost urterik bete gabe hiltzen diren haurren %30 txertoekin senda daitezkeen gaitzek jota hiltzen dira. Horregatik, Elkartasun Zentimoak programako kausa berriaren medioz, garapen bidean diren haurrak txertatzen lagunduko dugu", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

"Gure zeregina bete dezakegu lagundu egiten gaituztelako jendeak, administrazio publikoek, erakunde pribatuek eta enpresek; horien artean bat EROSKI, 2002tik laguntzen ari dena mundu osoko milioika haur salbatzeko eta babesteko lanean; izan ere, dagoeneko milioi bat euro baino gehiago emana du UNICEFen alde.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



COVID-19aren krisia dela medio, eten egin dira garapen bidean diren herrialdeetako txertatze kanpaina masiboak biztanleria zaurgarrienari laguntzeko. Horren ondorioz, txertatua ez dagoen haur kopurua igo egin da: 2019an, 14 milioi baino gehiago. EROSKIren kanpaina honekin, gure txertatze kanpainak zabaldu ahalko ditugu gehien behar duten herrialdeetan", esan du UNICEFek Euskal Herrian duen batzordeko presidentek, Isidro Elezgaraiak.

"Txertoak oso tresna eraginkorrak eta merkeak dira haurren hilkortasuna geldiarazteko zenbait herrialdeetan; esaterako, Kongoko Errepublika Demokratikoan. EROSKIren eta haren bezero guztien laguntza izatea une bereziki zail honetan garrantzitsua da oso. EROSKIrekin eginiko elkartasun ekintza berri honen aurretik ere hemezortzi urtean baino gehiagoan jardunak gara elkarrekin", esan du Mugarik Gabeko Medikuen Lankidetzaren Estrategikoaren arduradunak, Patricia Garcia Peinadok.

"Gure erakundearentzat funtsezkoa da EROSKIren eta gisako enpresen laguntza izatea: jakitun direnak milioika pertsonak bizimodu lazarrian daudela gure planetan, konpromisoa dutenak irtenbideak bilatzeko eta elkartasunez jokatzeko dutenak, munduan ihesean eta desplazatuta dauden milaka pertsonari laguntzeko proiektuak sustatuz. Aurten, elkartasun kanpaina honi esker, 5 urtez azpiko 19.000 errefuxiatu sudandar baino gehiago txertatuko ditugu Txadeko iheslarien eremuetan", esan du ACNURek Espainian duten batzordeko presidentek, Jose Maria Gil-Robles Casanuevak.

Elkartasun Zentimoak, kausa sozial askotarikoei laguntzeko

EROSKI azaroaren 5ean estreinatu zuen *Elkartasun Zentimoen* programa iraunkorra, eta orain arte bildua duena Elikagaien Bankuei eman die; horiek elikagai produktuak emango dizkiete bizimodu zaurgarrian diren familiei.

EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongitzako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen duten aldiro. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

Lagundutako erakundeak aldian behin aldatu egiten dira, gizartean aldi bakoitzean nolako beharrak dauden eta 3.500 bazkide-bezerok baino gehiagok nolako kezak helarazten dituzten. 2021ean, besteak beste egongo dira haurren alde ari direnak, bazterketa arriskuan direnei laguntzen dihardutenak, minbizia borrokatzen dutenak,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



desgaitasunak dituztenei laguntzen dietenak, gaixotasun arraroen aurka dihardutenak eta ingurumenaren alde dihardutenak.

"Elkartasun Zentimoak izeneko programa tresna eraginkorra da gure bezeroek modu errazean bidera dezaketelako bere konpromisoa gizarteko kausa askotarikoen alde. Programa iraunkor bat da, eta haren bitartez alor askotako erakundeei lagunduko diegu, betiere norabide jakin batean: gehien behar dutenei laguntzea", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean. 2020an, EROSKI 3,2 milioi euro baino gehiago eman dizkie janaritan, lehen mailako produktutan, eta ekarpen ekonomikotan askotariko gizarte erakundeei. Dohaintza horietaz gain, bezeroek 2,5 milioi euro eman dituzte COVID-19aren gizarte krisiak markatutako urte honetan.

UNICEFi buruz

UNICEF munduko lurralderik zailenetan jarduten da behar handiena duten hurrei laguntzen. 190 herrialdetan eta lurraldetan, haur bakoitzaren alde dihardute, nonahi eta egunero, guztientzako mundu hobe bat eraikitzeko.

Munduan den txerto hornitzaile handiena dira; haurren osasuna eta elikadura babesten dute, baita ur eta saneamendu seguruak, kalitatezko hezkuntza eta formakuntza, VIHaren prebentzioa eta amentzako eta haur txikientzako tratamenduak ere; orobat dihardute haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren eta esplotazioaren prebentzioan.

UNICEF lurraldean bertan egoten da giza larrialdietan, baita aurretik eta ondoren ere, esperantza eta funtsezko laguntza emanez hurrei eta haien familiei.

Mugarik Gabeko Medikuei buruz

Mugarik Gabeko Medikuek zuzenean esku hartzen dute baldintza mediko-humanitarioak hondatu zaizkien lekuetan eta krisien eraginez iraupena eta osasuna mehatxupean dituzten herrialdeetan, arreta berezia jartzen dietelarik laguntza jasotzen ez dutenei: gatazka armatuen, bortizkeriaren eta desplazamenduen biktimak, gaixotasun endemiko eta epidemikoak jasaten dituztenak, gizarte bortizkeriaren biktimak, osasun arretatik kanporatuta daudenak eta hondamendi naturalek kaltetuak. Gaur egun, 70 herrialdetan baino gehiagotan ari gara lanean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



ACNURi buruz

Iheslarien aldeko NBEko bulegoa da ACNUR, eta hiru eremu handitan egiten ditu esku-hartzeak: laguntza emanaz larrialdi humanitarioetan, iheslari eta desplazatuena iraupena bermatuz, eta baliabideak eskainiz etorkizuna berreraiki dezaten.

EROSKIren eta ACNURen lankidetzak hori ACNURek Espainian duen batzordearen bitartez gauzatuko da; horrek dihardu Espainian gizartea sentsibilizatzen iheslariak eta desplazatuak eragiten dituzten kausei buruz, eta enpresen, administrazio publikoen eta partikularren laguntza ekonomikoa sustatuz; helburua da ACNURek munduan gauzatzen dituen giza eta garapen proiektuak garatzen eta finantzatzen laguntzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)